Pasaron sin pena ni gloria a pesar de que el cuadro de desigualdad y pobreza que revelaban era bastante alarmante y, sobre todo, que delataban un agotamiento de la política oficial que se venía practicando en la última década.

Las dos anteriores Encuestas de pobreza y desigualdad llevadas a cabo por el Gobierno Vasco tuvieron su traducción política. La publicada en el 87 (sobre datos

de 1986) sacó a la luz unos niveles de precariedad y pobreza tan alarmantes que, llevó a la Administración a poner en marcha su política contra la pobreza desde 1989, instaurando ayudas sociales como el IMI (Ingreso Mínimo de Inserción) y AES (Ayudas de Emergencia Social), que se han convertido en muy populares.

En 1997 se publicó la segunda Encuesta (con datos de 1996). En aquella época, los del PSE-EE, que eran responsables de este negociado dentro del Gobierno Vasco de coalición con el PNV,

**Aunque el fuerte crecimiento económico y la caída del desempleo de los últimos años, ha mejorado los niveles de bienestar de la población vasca, el número de personas en situación de pobreza grave se ha incrementado**

estaban todavía cocinando lo que sería la futura ley contra la exclusión social, que vería la luz en junio del 98. Los datos de la Encuesta 96, que mostraban una mejoría de la pobreza más grave detectada 10 años antes, fueron utilizados para justificar una política continuista en el terreno de la exclusión social.

### **Que hablen los técnicos**

El Resumen y conclusiones de la actual encuesta es una bomba. A uno le asombra la capacidad que tiene la Administración para hacerse la loca después de dejar que sus técnicos investiguen y publiquen cosas como esta. En lo que resta de artículo me limito a resumir y ordenar lo dicho por los propios redactores..

**1.** Aunque el fuerte crecimiento económico y la caída del desempleo de los últimos años, ha mejorado los niveles de bienestar de la población vasca, el número de personas en situación de pobreza grave se ha incrementado.

El indicador de pobreza de acumulación ha pasado del 1,8% del 96 al 2,6% (52.943 personas) actual. El indicador de riesgo de pobreza grave de los hogares ha crecido desde el 4,6% (31.092 hogares) de 1996 hasta el 5,5% (37.776 hogares) de 2000.

En los últimos años no se da un incremento relativo de los ingresos medios en concepto de pensiones, subsidios y demás prestaciones procedentes de la Seguridad Social y de la Asistencia Social que resulte sustancialmente superior al correspondiente a sueldos, salarios y demás ingresos correspondientes al sistema productivo. Este proceso, sin embargo, fue el que permitió reducir los niveles de pobreza en el período 86-96, a pesar de constituir este un período muy fuertemente marcado por el aumento del desempleo.

**2.** El incremento de las formas graves de pobreza se asocia con el aumento de este tipo de problemática en dos grandes colectivos de personas con responsabilidades en el hogar. El primero colectivo hace referencia a las mujeres inactivas: mujeres solas con prestaciones no contributivas, fundamentalmente mayores de 65 años, aunque no exclusivamente; mujeres mayores de 65 años con pensiones de viudedad y mujeres solas mayores de 65 años, con otras prestaciones contributivas (jubilación, etc.).

El segundo colectivo tiene que ver con las personas ocupadas. Dentro de él destaca el incremento de las tasas de pobreza entre los ocupados menores de 45 años, incremento a su vez muy concentrado entre la población más joven.

### **Factores de empobrecimiento**

El aumento del riesgo de pobreza grave se asocia en los últimos años a los tres factores siguientes:

**1)** Insuficiente cobertura de la protección de la Seguridad Social contributiva a las mujeres inactivas mayores de 65 años (principalmente pensiones de viudedad).

**2)** Insuficiente cobertura de los sistemas complementarios (pensiones no contributivas y prestaciones complementarias de Asistencia Social).

**3)** Bajos ingresos ligados a ciertas ocupaciones correspondientes a personas jóvenes de reciente incorporación al mercado de trabajo.

Hay que resaltar que, en los dos primeros casos, el déficit detectado se asocia en buena medida a un desajuste económico reciente en la capacidad adquisitiva de las prestaciones, más que a la propia configuración del modelo de protección, puesto que en 1996 una parte importante de estos colectivos podían superar sus problemas de pobreza.

**Quienes desean independizarse y no tienen recursos económicos son fundamentalmente jóvenes**

Frente a estas disfunciones de naturaleza al menos parcialmente coyuntural, hay que destacar que permanece, aunque ocultado en gran medida por el fuerte descenso del volumen total de desempleo, el déficit estructural de desempleo de la población parada. En este sentido, desde 1986 no deja de incrementarse la tasa de pobreza entre este colectivo, que llega a situarse en el 34,9% en el 2000 (con la ya clásica diferenciación penalizadora por géneros, pues en las mujeres la pobreza grave entre las paradas afecta al 59,8% y entre los hombres al 24,5%).

### **Penosa emancipación**

3. La recuperación de los procesos normalizados de acceso a la vida independiente en las genera-

ciones jóvenes es un reto aún por resolver. 132.609 personas que señalan desear constituir un nuevo hogar independiente dicen no poder hacerlo por falta de recursos económicos, lo que representa un 15% de la población total de 18 a 44 años.

El principal rasgo socio-demográfico que identifica a las personas que desearían vivir de forma independiente y no lo pueden hacer por ausencia de recursos económicos es su juventud, con un 93% de personas con problemas de independización entre los 18 y 34 años. El segundo rasgo es que los que más anhelan esta independización son la gente joven con cierta cualificación. El 76,5% del total tienen estudios secundarios o terciarios. El tercer

rasgo a destacar es la importancia que tiene la ocupación entre las personas consideradas. Los ocupados representan el 65,1% del colectivo (23,6% de desempleados y 11,3% de inactivos).

El origen de las dificultades de independización entre quienes estarían dispuestos y dispuestas a independizarse en el corto plazo (79.619 personas), se concentra en la dificultad de acceso a una vivienda propia (el 91% carecen de vivienda de propiedad) y en el elevado riesgo de pobreza (el 38,5% podría considerarse en riesgo de pobreza grave) o de ausencia de bienestar (hasta un 80,6% podría situarse por debajo de los umbrales necesarios para acceder a niveles mínimos de bienestar). □

"Cuando un delincuente mata por alguna deuda impagada,  
la ejecución se llama *ajuste de cuentas*;  
y se llama *plan de ajuste* la ejecución de un país endeudado,  
cuando la tecnocracia internacional decide liquidarlo.

El malvaje financiero secuestra países y los cocina si no pagan el rescate.  
La economía internacional es la más eficiente expresión del crimen organizado.  
Los organismos internacionales que controlan la moneda, el comercio y el crédito,  
practican el terrorismo contra los países pobres,  
y contra los pobres de todos los países,  
con una frialdad profesional y una impunidad,  
que humillan al mejor de los tirabombas.  
En los suburbios del mundo,  
los jefes de estado venden los saldos y retazos de sus países,  
a precio de liquidación por fin de temporada,  
como en los suburbios de las ciudades los delincuentes venden,  
a precio vil, el botín de sus asaltos."

**Eduardo Galeano.** *Patatas Arriba, la escuela del mundo al revés*

Kontzertu ekonomikoaren gorabeherak

# Hauteskundeek irentsitako negoziazioa

**Argia, 1794. alea**  
2001ko otsailaren 4a

**Kontzertu Ekonomikoa ez zen sortu zerga deszentralizatzeko xedez, eta ezta Estatuaren eta euskal probintzien arteko zerga-harreman gisa ere**

Azken asteotan adierazpen politikoen zaparrada izan dugu Madriletik nahiz Gasteiztik urte hau amaitu aurretik berritu beharreko Euskal Kontzertu Ekonomikoaren inguruan. Zaparrada horren azpian aurkitzen da EAEko hauteskunde atariko giroak eragindako krisialdi politikoa eta Madrileko Gobernuak, kontzertu berritze horretaz baliatuz, Kupoa edo EAEk Estatuko Aurrekontu Nagusiei egiten dien ekarpena handitzeko duen asmoa.

Euskal herritarren artean, zenbaitek autogobernuaren adierazpentzat hartu du Kontzertu Ekonomiko hori, eta, aldiz, beste batzuek herri honen burujabetzarik ezaren adierazgarri dela uste dute. Litekeena da, horien artean, batez ere gazteenen artean, Kontzertuaren jatorria eta helburua ezagutzen ez duen hainbat jende egotea. Horregatik, eta gaiak duen gaurkotasuna kontuan izanik, erreportaje honetan horixe argitzen saiatu nahi izan dugu.

## **Historia piska bat**

EAEren eta Espainiako Estatuaren arteko zergaren inguruko harremanak, gaur egun, Kontzertu Ekonomikoaren bidez arautzen dira, eta horri esker EAEk edozein Ogasun Publikok dituen ohiko baliabideak ditu zerga-bilketaren bidez.

Baina, zein da gaur egungo Kontzertuaren jatorria? Kontzertu Ekonomikoa ez zen sortu zerga deszentralizatzeko xedez, eta ezta Estatuaren eta euskal probintzien arteko zerga-harreman gisa ere, baizik eta zubi gisa, lehenagoko foru erregimena -formalki 1876ko uztailaren 21eko legeak deuseztatua-

**Kontzertu  
Ekonomikoaren bidez  
EAEk bere zerga sistema  
berezia du, eta zerga-sis-  
tema orokor bat osa  
dezake zerga ezberdin  
bakoitza arautuz**

kendu eta Antonio Canovas del Castillok erregimen komuna ezartzeko zuen helburu nagusia betetzeko, 1877ko ekitaldirako hemengo gizonak soldadutzarako erreklutatzen hasi ondoren. Baina herri honetan gertatu ohi denez, behin-behinekoa izateko jaiotzena behin betiko bihurtzen da, hainbat eragile politiko eta ekonomiko direla medio. Eta, amaitzeko dioenez, 1878an emandako behin-behinekotasun horrek ezartzen dio hauskortasun larriena kontzertuari.

Kontzertu Ekonomikoaren sistema 1978an berretsi zen, Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriak berariaz aitortuz euskal foru herrialdeen nortasun politikoaren errealitate historikoa: eskubide historikoak. Euskadiko Autonomia Estatutuaren III. Tituluak Ogasun Autonomo propioa aitortzen dio EAERI bere eskumenak erabili eta garatzeko. Horrela herrialde historikoen, batetik, zergak arautzeko ahalmena dute eta, bestetik, horiek kudeatu eta biltzeko erabateko autonomia. Kontzertuak ezartzen du noiz erabiliko den euskal zerga araudia eta noiz lurralde komunarena, edo zerga ordainarazpena zein Zerga Administrazioari dagokion.

Baina Kontzertuak bere ezarpen alderdian, esate baterako Kupoari dagokionean, EAEren ahalmenak arautzen ditu eta haren jarduera gaitasuna mugatzen du, Madriletikiko mendekotasuna finantzatuz eta nabarmenduz.

**Kupoa: EAE-k Madrili egiten dion ekarpena**

Kontzertu Ekonomikoaren bidez EAEk bere zerga sistema berezia du, eta zerga-sistema orokor bat osa dezake zerga ezberdin bakoitza arautuz, hala nola Pertsona Fisikoen gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Balio Erantsiaren Zerga eta abar. Finantzaren ikuspegitik, eta Autonomia Estatutuaren eta Kontzertu Ekonomikoaren ezarpenak erakundeen arteko finantza egoera desorekaturik eragin ez dezan, EAEk bere zerga bidezko baliabide batzuk Espainiako Administrazioari ematen dizkio soilik Estatuaren eskumeneko diren karga orokorrekin aurre egin diezaien, eta horien artean aipatzekoak dira nazioarteko harremanak, defentsa eta indar armatuak, aduana eta muga zerga erregimenak eta esparru edo interes orokorreko garraioa.

EAEk egiten duen ekarpen horri Kupoa deitzen zaio. Kupoa, hasiera batean, Ogasun Ministerioak Gerra Karlisten ondoren bere jarduera ezarri izan balu euskal probintzietan bilduko zukeen diru kopurua zen, eta horri kendu egin behar zitzaizkion Aldundiek Estatuaren ordean bere gain hartzen zituzten gastuak -nagusiki, probintzietako

poliziak, errepideak eta diru-bilketak gastuak-. Baina, gerora, Francoren diktaduraren ondoren eta Autonomia Estatutua ezarritakoan, Kupoaren kalkulua beste modu batera egiten da. Estatuak eskaintzen dituen zerbitzuengatik probintzi hauek ordaindu beharreko kopuruan oinarritzen da. Errentaren balioespen baten arabera zehazten da, %6,24 ezaguna. Lege bat argitaratu zen zehazki horretarako, Kupoaren Legea, Kontzertuarekin zerikusirik ez zuena, 1981ean onetsia eta 25 urterako iraupena duena. Bost urtean behin ezartzen da, eta urtero berrikusten da, autonomia bakoitzak bereganatzen dituen eskumenen arabera eta defizit publikoa eta aurrekontua kontuan hartuz.

Kupoaren zenbatekoa Estatuaren kargen arabera erabakitzen da. Beraz, EAEk Estatuari ordaintzen dion Kupoa ez dago bere eskuarteko baliabideen arabera, baizik eta Espainiako Estatuaren karga orokorren menara. Nolanahi ere, neurri batean, EAEren ekarpena bere ahalmenen arabera izango da, bere errenta erlatiboaren arabera den heinean. Izan ere, Estatuaren karga orokorrekin EAEren indize erlatiboa aplikatzearen arabera erabakitzen baita

**Kupoaren zenbatekoa Estatuaren kargen arabera erabakitzen da. Beraz, EAEk Estatuari ordaintzen dion Kupoa ez dago bere eskuarteko baliabideen arabera, baizik eta Espainiako Estatuaren karga orokorren menara**

Kupoa. Indize erlatibo hori EAEk Estatuko osotasunarekiko duen ekarpen ahalmenaren arabera da.

Batzorde misto bat arduratzen da kupoa zaindu eta negoziatzeaz. Batzorde hori hamabi kidez osatzen da. Horietako hiru euskal Foru Aldundietako bakoitzaren izenean daudenak, beste hiru Eusko Jaurlaritzaren izenean eta gainerako seiak Espainiako Gobernuaren izenean. Ekarpenean hiru epe jakinetan eta kopuru berdinetan egiten dira Espainiako Estatuaren altxortegian: maiatzean, irailean eta abenduan.

EAErentzat 1981ean ezarritako lehenengo Kupoa 116.979 milioi pezetakoa (4.679 milioi libera) izan zen, horietatik 14.341 milioi pezeta (574 milioi libera) izanik Arabari zegozkionak, 38.243 milioi (1530 milioi libera) Gipuzkoari eta 64.395 milioi (2.576 milioi libera) Bizkaiari.

### **Madrialek kupoa handitu nahi du**

EAEk ekarpen ekonomiko handiagoa egitea nahi du Espainiako Administrazioak. Hitz gutxitan esanda, EAEn Kupoa handitzea eta beste erkidegoekiko aldeak ezabatzea izango da Madrilaren helburua. Azken batean, abertzaletasunaren aurkako erasoaldi honen barruan, Kontzertu Ekonomikoa "desitxuratu" eta egungo zerga sistema mugatua arriskuan jartzea da nahi dutena. Horixe da azken asteotan Madrialeko egunkarietan ageri diren informazioetatik ateratzen den ondorioa.

### **Madrialek "bake fiskala" hautsi du, EAE-k dioenez**

Espainiako Gobernuak berriro ere epaitegi eskudunetan errekurritu ditu Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiek inbertsioaren aldeko zerga pizgarri batzuei eta zerga zigorraren murrizpenei buruz ezarritako hainbat arau. Bai Eusko Jaurlaritzak eta bai EAeko Aldundiek adierazi dutenez, Espainiako Gobernuak, jarrera horrekin, hautsi egin du 2000ko urtarrilaren 18an sinatutako bake fiskala. Akordio hartan foru ogasunek eta Espainiako zergei buruzko neurriak alde aurretik eztabaidatzeko konpromisoa hartu zuten, istilurik sor ez zedin. Beste akordio baten bidez Espainiako Gobernuak euskal fiskalitatearen aurka ekindako jarduerak guztiak bertan behera uzteko konpromisoa ere hartu zuen, Aldundiek pizgarri jakin batzuk indargabetzearen truke.

Kupoari esker, itundutako zerga guztiak biltzen dituelarik, Aldundiek beren eskumenak dituzte hainbat zergatan, baina, 1997ko maiatzaz geroztik, arauak ezartzeko eskumena da bere baliabide garrantzitsuena, nahiz eta oso mugaturik geratu zeharkako zergetan esku hartzeko aukera (esate baterako, BEZa). Batez ere Sozietateen Zergaren inguruan sortu dira aldundiek ezarritako foru arauen aurkako errekursoak. Hain zuzen ere, inbertsioaren aldeko zerga kenketarako neurrien inguruan sortu izan da arazoa, inbertsioa bultzatu nahi duten neurri horiek Estatuak emandako laguntza gisa

hartzen baitira eta merkatu librearen legeak hausten direla argudiatzen da. Adibide ezagun batzuk aipatzearen, hor ditugu Daewoo, Ramondin edo Lehiakortasunerako Europako Komisaritzaren urratze prozedura.

Orain Madrialek EAeko Foru aldundien hainbat arauen aurka jarritako errekursoek arazoa larriago egiten duen ezaugarri bat dute, hots, errekursoak bake fiskala sinatu zen egun berean jarri zirela, 2000ko urtarrilaren 18an. Josu Bergarak, Bizkaiko diputatu nagusiak horregatik esan zuen, "bake fiskala hautsitzat eman daitekeela 2000ko urtarrilaren 18tik aurrera, hau da, sinatu zen egun beretik. Sinatzen zen une berean, elkarri eskua luzatzen zien bitarte une berean, Estatuaren abokatua Bizkaiko arau baten aurkako errekursoa aurkezten ari zen". Hiru Aldundietako ordezkariak, PPren esku dagoen Arabakoak ere bai, epaitegien aurrean defendatuko direla iragarri dute, nahiz eta oraindik ez garbi egon elkarrekin arituko diren ala ez. □


**Orain Madrialek EAeko Foru aldundien hainbat arauen aurka jarritako errekursoek arazoa larriago egiten duen ezaugarri bat dute, hots, errekursoak bake fiskala sinatu zen egun berean jarri zirela**

Gobernuaren atzerritartasun politikaren aurka

# Beste politika baten alde

## Gipuzkoako 7 elkarteek

*Jarraian doakizue Gipuzkoako zazpi elkarteek Gobernuaren atzerritartasun politikaren aurka argitaratu berri duten manifestua. Agiri ahu, azaroaren 26an elkarre horiek Pasaia-Donostia antolatuta zuten ibilaldian banatu zen. Bertan, atzerritartasunari buruz Partidu Popularra eramanen ari den politika bere osotasunean kritikatzeko da, bereziki partidu horretako buruzagiek behin eta berriz errepikatzen dituzten ideia batzuk. Azkenik, eskubideen berdintasunean oinarritutako politika aldarrikatzeko dute, bai marko normatiboan, bai praktika administratiboan, integrazioa bultzatu eta gizarte orekatu bat eraikitzeko.*



Partidu Popularra atzerritartasunari buruz bultzatzen ari den politikaren aurrean, bere ezaugarri hurbilenetariko bat indarrean dagoen Atzerritartasun Legearen aldaketa delarik, idazki hau izenpetezen dugun elkarteok zera diogu:

### 1.

Legedian Gobernatuak proposatzen dituen aldaketek ez dutela balio etorkin ezkomunitarioen sarrera, egonaldia eta erresidentzia zuzendu eta razionalizatzeko. Alderantziz, sarrera galeraziko dute, egoera ez regularretik ego-

era erregularrera pasatzea oztopatuko dute eta kanporaketak erreztu egingo dituzte

### 2.

Egonaldirako eta bertan bizitzeko bisen ukapenean oinarritutako politikak, bereziki ankerra Afrikatik datozen etorkinekiko, oinarritzko giza eskubide baten ukapena suposatzen duela: bizitza duinago bat bilatzeko norberaren jaioterria utzi eta beste leku bat batera joatearena hain zuzen. Ukapen horrek ondorio zuzenak ditu, bisarik gabe, etorkinek ezin baitute bidaiatzeko garraio sistema konbentzionalik erabili, eta beste batzuk erabiltzera derrigortuta daude, askoz garestiago eta arriskutsuagoak, jendearen premiekin negoziatzea egiten duten sareen eskuetan euren burua jarritz. Horregatik, arazo honetan, Estatuaren erantzunkizun zuzena dagoela deritzogu, hemengoarena eta Europa Batasuneko beste guztiena ere, eta hori salatu beharra dago.

### 3.

Gobernua, migrazio-lekualdatzea menperatzeak kezkatzen omen du. Gu, ordea, migratzen duten

pertsonen arazoez kezkatzen gaituzte nagusiki: bizitza galtzen duten migrarietak, ez baitira inoren hilak, eta euren bizitzeko oinarritzeko eskubidea ez baitu herrialde honetako alderdi politiko batek ere defendatzen; papeirik gabekoen arazoak, eskubide-dun subjektuak ez direlako; lana egiteko eskubidea, nahiz eta lan eskaintza tintoak eduki, ukatzen zaien migrarien arazoak; Centros de Internamiento (etorkinentzat kartzela bereziak) deritzaien horietan, kanporatu aurretik atxilotzen dituzten migrarien arazoak; Estatuarekiko harreman guztiak Barne Ministeritzarekin edukitzera behartuta dauden etorkinen arazoak, beti polizia talde berezi baten kontrolpean, euren bizitza pribatuaren azkenengo zokoraino sartzeko ahalmena duena, beste hiritar guztiekin egiten ez den bezala; legedi berezi baten menpe, eta horregatik desberdintasunean dauden etorkinen arazoak, bai langileei dagokienez eta bai edozein hiritarri dagokienez ere.

#### 4.

Gobernua, berak esaten duenez, dei efektua delakoak kezkatzen omen du. Ditzosozko efektu hori, mamu bat besterik ez da, Gobernuek eta inguruko administrazioek mugak ixtearen aldeko neurriak justifikatzeko eta pape-rekin arazoak dituzten etorkinen aurkako arrespresioa areagotzeko erabili ohi dutena. Ez da sekula bere garrantzia frogatu fenomeno sozial bezala migrazioen eremuan, esparru oso mugatuetan ezik. Baina mamutzar bezala erabiltzeak, badu beste ondorio gaizto bat: beste batzuei ez deitzeko, bertan daudenek gaizki pasatu behar dute, eta honela, zilegi da gaizki pasaraztea.

#### 5.

Partidu Popularrak bultzatutako atzeritartasun politikak, proposatzen duen legean eta laguntzen dion diskurtsoan argi eta garbi gauzatzen dena, susmopean jartzen ditu etorkin guztiak. Bestalde, adar asko dituen (giza eskubideak, ekonomia, hezkuntza, kultura, elkarbizitza, identitateak...) eta oso korapilotsua den arazo bat, kontrolaren, segurtasunaren eta eskubideen murrizketaren menpe jartzen da. Giza multzo bati eskubideak murrizteak, zailasun administratiboz zamatzeak, politika horren bultzaileren talantea erakusten du, eta guztien eskubideak murrizteko prest daudenaren berri ematen du.

#### 6.

Idazki hau sinatzen dugunok, eskubideen berdintasunean oinarritutako politika bat aldarrikatzen dugu, migrazioen zilegitasuna, migratzeko eskubidea oinarri eta abiapuntutzat hartzen duena. Ez dela nahikoa Iparrak Hegoarekiko esplotazioa arbuiazea, ez baldin badugu, beste desoreka batzuekin batera, populazioen arazoa kontuan hartzen eta, era berean, Europarantz datozen migrazioak mundua hobeto banatzearen aldeko borrokaren zati bat direla.

#### 7.

Idazki hau sinatzen dugunok, benetako integrazio sozial eta politikoa bultzatzeko, eskubideen berdintasuna eta guztiontzat hiritartasuna onartzea derrigorrezkoa dela deritzogu, eta hori ezinbesteko baldintza dela beste alorbatzuetan aurrera-pausoak emateko: lan baldintzetan, soldate-tan, etxebizitzetan eta guztiongan eragina duten gai publikoetan parte hartzeko. □

**Eskubideen berdintasuna eta guztiontzat hiritartasuna onartzea derrigorrezkoa dela deritzogu, eta hori ezinbesteko baldintza dela beste alorbatzuetan aurrera-pausoak emateko**



# Etorkinak arazo

**Jesus Casquette**

Egunkaria, 2001eko urtarrilaren 19

Egungo gizartearen norabidea aztertzen duten guztiek honako puntu honetan bat egiten dute: gure gaur egungo gizarteek, inoiz baino nabarmenago, gizabanakotasunaren prozesua ahalbidetzen dutela azpimarratzen dute.

Ni-aren nagusitasun irabazi berri honek esan nahi du, besteak beste, gizabanako xumeak bere balizko arazogarritasunaren kontzientzia hartzeko ahalmena duela. Baina gaurkoan, hezkuntzari eta komunikabideei esker bereziki, jakintza gizartearen maila guztietara hedatzen den une beretik, pertsona xehe (ia) orok baditu bere subjektibitatean murgiltzeko ezinbestekoak diren baliabide kognitiboak. Jausia, beraz, kuantitatiboa eta kualitatiboa da aldi berean, orain lagun gehiagok informazio maila altuago duelako indibiduoak ni ezberdindua bilakatzeko.

Ahalmen horren lekuko dugu W.E.B. Du Bois soziologo, historialari eta ekonomialari iparramerikarrak 1903an argitaratutako "Herri beltzaren arimak" izenburu zuen liburua, non jorratu zuen mamitsua eta geroa profetikoa gertatuko zen arazoa. «Zer sentitzen da arazoa

izanik?», galdetu zion bere buruari. EEBB-etako beltzen egoeraz ari zen bera, noski, baina, denborak frogatuko zuen moduan, lengoaia unibertsala zerabilen jadanik Harvard-eko unibertsitateko lehenengo doktore beltz honek. Esan nahi baita aise orokortu daitekeela kezka hori elkarbizitzaren beste esparruetara, azkeneko hamarkadetan geroz eta gehiago baitira gure gizarte askotariko eta multikulturaletan beren ekintza kolektiboa galdera horretatik bideratzen duten giza-taldeak.

Etorkinak, eta Hirugarren Mundutik bertaratutako etorkinez ari naiz, krisialdi ekonomiko larriak edota egoera politiko zapaltzaile eta jasangaitzak eraginda beraien jaioterria uztera beharturik, talaia paregabe daude postmodernitateari berezko zaion giza-talde ugari arazo izatearen sentipenaren hedapena islatzeko. Etorkin hauekin ditugun jokabideek irakasten diguten eskaintzen ahal dizkigute betidanik hemengoak garenok gure gizartearen benetako izaeraz. Ezen gure gizarteak ezberdinarengan, arrotzarengan, bestearengan laburtzeko, islatzen ohi dituzte beren miseriak eta barne-kontradikzioak. Gizartekidetasunarekin loturiko-

ak, haien artean: egoera ezin paradoxikoagoan aurkitzen dira etorkinak gure artean, presente egonik ere, absenteak direlako. Gure artean daude, baina fisikoki soilik, ez baitira gutarrak; beraiantzat hiritartasunari loturiko abantailei sarbiderik ez, edota berau oztopatua, baina betebeharrak soberan.

Bertakook baztertzen ditugun lanak *sans-papiers* etorkinei lagatzen dizkiegu gu guztion ongizateari egiten dioten ekarpena merezi bezala aitortu gabe. Seguruenik beste edozein giza-talderentzat baino argiago, gizartearen jokabidea beraiekin indezentea, umiliagarria da hein handi batean.

Zenbait politikariren jokaerek, buruan datozen hauteskundeak besterik ez dituzten horiek, alegia, ez dute gehiegi laguntzen etorkinen auziari konponbide duin eta bidezko bat ematen. Are gehiago, indezentetzat jo daitezkeen portaerek estatista falta ikaragarria uzten dute agerian. Berauen zeregin nagusietarikoa etorkinentzat eta gizabanako guztientzat indezentzia maila gutxitzea izango litzateke, horrela ahalik eta gizarte justueneranzko urratsak emateko. Guztion onerako. □

# Lecturas recomendadas




## **El poder en el mundo** **Joaquín Estefanía** Plaza-Janés, Barcelona, 2000

Estefanía describe sintéticamente en este libro las líneas generales del panorama actual del poder en el mundo y sus consecuencias más importantes. Parte del hecho incuestionable de la pérdida de la importancia del poder político que coloca en tercera posición precedido por el poder financiero y el poder mediático.

Partiendo de que los hombres con dinero pueden comprar a los hombres con poder, se analiza el nuevo papel de la economía financiera, la nueva economía virtual frente a la economía real, señalando con una

cita de Galbraith que la economía pura carece de relevancia si se la considera separada del ejercicio del poder. En este contexto el centro del máximo poder se ubica en las corporaciones y en las organizaciones financieras y su utilización de la bolsa. Los sistemas de transmisión, las redes de acceso, las de navegación de web, los medios de comunicación pertenecen a las mismas personas que son las que indican qué es información y dónde se difunde.

Este libro es una excelente descripción del panorama de los poderes en el mundo hoy y será muy útil su lectura, aunque comprendiendo las limitaciones de una edición de bolsillo. □



## **Globalización económica, poder político y estado del bienestar** **Vicenç Navarro** Ariel, Barcelona, 2000

Navarro recoge en este libro un conjunto de artículos la mayoría ya publicados en diferentes revistas que siguen la tónica de dismantelar con rigor los postulados más comunes del neoliberalismo.

La obra tiene algunos ejes centrales que ahora se enriquecen con datos actualizados o con argumentos reforzados. El primero de ellos tiene que ver con el presupuesto sobre el que suele basarse la retórica neoliberal y según el cual han sido una serie de cambios reales los que han producido la crisis del Estado de Bienestar y el declive de las políticas sociales en casi todo el mundo. Navarro demuestra que más que cambios reales, han sido cambios en las preferencias políticas, derivados del mayor compromiso de los gobiernos con los intereses del capital, los que han lleva-

do a dismantelar los sistemas de protección y a renunciar al impulso gubernamental de las políticas de bienestar social.

En consecuencia, el libro es un alegato riguroso a favor de la actualidad y de la conveniencia de impulsar políticas socialdemócratas para alcanzar mejores resultados económicos globales y mayor bienestar. Ocupa un lugar central en el libro la discusión acerca de las pretendidas ventajas del modelo norteamericano sobre el europeo. Frente a la idea generalizada de que este último se encuentra esclerotizado, Navarro demuestra que sus resultados y sus posibilidades no sólo son mejores desde el punto de vista de la eficiencia económica sino, sobre todo, desde el de la consecución de mayores niveles de bienestar y satisfacción social.

El libro se completa con capítulos sobre la problemática del trabajo, de la globalización financiera, sobre la nueva economía o sobre el papel de la banca en España. □

# Hitz gutxitan Kornerra



**Pako Aristi**, "Euskaldunon egunkaria"

## Tramite hutsa

"(...) Euskararen alde daudenek hizkuntzari eragiten dioten desprestigioak gehiago kezkatzen nau. Euskara gozotasuna galtzen ari da, eta gero eta gehiago belarria mintzen duen hizkuntza bilakatzen ari da. (...)

Edozein talde edo erakunderen prentsaurrekoetan, gehienetan gaztelera biziaren ondoan euskara infame bat erabiltzen dute, agerpen hori prestatzeko batere lanik hartu gabe (...)

Bere alde agertzen diren askorentzat, euskara tramite bat besterik ez da, errespetuaren antza hartu nahi lukeen itxura bat ematea besterik ez (...).

Normalean oso problematikoa da euskaldun guztiok euskararekin daukagun harremana.

Euskal rock taldeen letra gehie-

nak penagarriak dira euskara aldetik; euskaraz jasotzen dugun publizitatea bezala, itzulpen instituzionalak bezala; (...) endredo bat edo beste dela eta niri deitzen didaten udal funtzionario gehienek aditzarekin hasten dute agurra, 'Dago Pako Aristi?' esanez. Ezetz esateko gogoia ematen dit, ni ez naizela hizkuntza itsusi hori erabiltzen dutenen tribukoa.

Guk barrutik hizkuntzaren edertasunari eusten ez badiogu arrazoia ematen diegu bere desprestigioa bilatzen eta aldarrikatzen dutenei. Ederki antzematen baita zeini zaion euskara ezinbestez erabili beharreko hitz mordo gogaikarri: tamalez, gehienei (...)" . □



## Hermes

**Sabino Arana Fundazioa**

Hermes (erromatarrentzat Merkurio zela parekoa) Zeus eta Maiaren semea zen.

Grekoentzat, lapurren, merkatarien eta hizlarien jainkoa zen, jainkoen mezularia izateaz gain, gizon-emakumeen artean.

Izen horrekin, Sabino Arana fundazioak, mende haserako nazionalisten aldizkari bat berargitaratzea erabaki du. Fundazioaren arduradunen aburuz, "*mende hasera honetan, ideologiak bere profil gogorrenak leuntzen ari dira, gauza publikoaren izaera merkantilaria egokituz*".

Elkarrizketa eta gizartearen eztabaidarako tresna izan nahi du Hermes.

Begi onez ikusten dugu holako argitalpenen sorrera, beti ere abertzaletasunaren prekarietatea ideologikoa gainditzen lagungarri izan daitekeen neurrian. Espero dugu, hala ere, merkaturaren kaltean, Hermes jainkoaren alde hoberenak gauzatzen asma dezatela, hau da, kultur aurkikuntza berri bat izatea abertzaletasunarentzat. □



MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA